

## 1. IKASTETXEKO SARRERA-IRTEERAK

Orain arte bidalitako hezkuntza-arloko berariazko arauetan, familiei begira, ondoren zehazten diren hainbat irizpide aurreikusten dira. Aldaketak egon daitezke, oraingoz, honako hauek dira:

- ✓ *“Sarrera-irteerak mailakatuak izango dira”.*
- ✓ *“Pertsona bakarra joango da ikastetxera ikaslearen lagun, eskola-egunaren hasieran edo amaieran, eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da beti.”*
- ✓ *“Laguntzaileak ezin izango dira inguruan geratu, taldekatzeak eratzuz.”*
- ✓ *“Familiakoak ikastetxeetara sar daitezzen saihestuko da, irakasleek gidatutako ikasle gazteenak entregatzeko eta jasotzeko”.*
- ✓ *“Familiekin telefonoz, posta elektronikoz, mezuz edo posta arruntez komunikatzea lehenetsiko da, eta kudeaketa telematikoak erraztuko dira. Senitartekoak irakasleek edo zuzendaritza-taldeak hala eskatzen badute bakarrik sartu ahal izango dira eskola-eraikinera, betiere prebentzio- eta higiene-neurriak betez, eta inola ere ez COVID-19rekin bateragarria den sintomarik badute”.*
- ✓ *Temperatura etxean hartuko da ez ikastetxean.*

## ORDUTEGIA

**Jardunaldi osoa eta murriztua:** Irailaren 13tik  
aurrera jardunaldia goiz eta arratsaldez izango da.  
→09:00-12:30 eta 15:00-16:30

**Jardunaldia goizez bakarrik denean,** ordutegia  
honako hau izango da:  
→09:00-13:00

## ANTOLAKETA

Gure antolaketaren helburua ziurtasun neurri guztiak zainduz, familiei ahal den heinean laguntzea izan da. Denbora tarteak mantendu ahal izateko guztion laguntza ezinbestekoa izango da pilaketarik egon ez dadin eta, horretarako eskatzen zaizue, arren, zuei egokitutako orduan puntual etortzea (ez lehenago, ez beranduago). Sarrera-iletan distantzia fisikoa mantentzen dela bermatzeko seinaleak errespetatu behar dira.

- **HH4-5 eta LH1-2-3 mailetan tutoreak aterako dira ikasleen bila.**
- **LH4-5-6ko ikasleak bakarrik sartuko dira eskolan.**

Sarrera gunen eta denbora desberdinak egongo dira. Sarrera-irteerak leku beretik egingo dira. Ikaslea utzi edo jasotzen denean, gunean ahal den eta azkarren utzi behar da libre.


### ERREGEZAINZAKO ERAIKINA irailaren 10era arte

HERIZ PASEALEKUA	ERREGEZAINZAKO ESKUINEKO ATEA	ERREGEZAINZAKO EZKERREKO ATEA
HH4 (09:00)-(12:55) 4 URTE HH3 (09:05)-(13:00) 3 URTE HH2 (09:00)-(12:55) 2 URTE	LH2 (09:00)-(12:55) HH5 (09:05)-(13:00)	LH1 (09:05)-(13:00) LH3 (09:00)-(12:55)


### ERREGEZAINZAKO ERAIKINA GOIZ ETA ARRATSALDEZ

HERIZ PASEALEKUA	ERREGEZAINZAKO ESKUINEKO ATEA	ERREGEZAINZAKO EZKERREKO ATEA
HH4 (09:00)-(12:30)-(16:25) HH3 (09:05)-(12:30)-(16:25) HH2 (09:00)-(12:20)-(16:20)	LH2 (09:00)-(12:30)-(16:25) HH5 (09:05)-(12:30)-(16:30)	LH1 (09:05)-(12:30)-(16:30) LH3 (09:00)-(12:30)-(16:25)
*2 urteko ikasleentzat atea 12:20tan irekiko da.		

## HERIZ PASEALEKUA IRAILAREN 10era arte

LARRAMENDI	CEINPRO
LH4: (09:00-13:00)	LH5 (09:00)-(12:55) LH6 (09:00)-(13:00) <i>*6. mailako ikasleentat atea 08:55etan irekiko dira.</i>
	

## HERIZ PASEALEKUA IRAILAREN GOIZ ETA ARRATSALDEZ

LARRAMENDI	CEINPRO
LH4: (09:00-(12:30)-(16:30))	LH5 (09:00)-(12:30)-(16:25) LH6 (09:00)-(12:30)-(16:30) <i>*6. mailako ikasleentat atea 08:55etan irekiko dira.</i>
	

## IKASTETXERA ETORRI BAINO LEHEN

*“Norberaren erantzukizunari helduz, etxean bertan tenperatura hartu behar da ikastetxera joan aurretik, eta ez dira joango COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak, ez eta COVID-19 diagnostikoaren bidez isolatuta daudenak edo etxean berrogeialdian daudenak ere, sintomak dituen pertsonaren batekin kontaktu estua izan dutelako edo COVID-19a diagnostikatuta daudelako.*

*Ikastetxeko Zuzendaritzari eta prebentzio-zerbitzuari jakinarazi behar zaie. ”*

### ZER EGIN SINTOMATOLOGIA AGERTZEN BADA?

01

#### IKASTETXERA JOAN AURRETIK. Edozein pertsonak

- Covid-19 sintomak baditu
- Isolamenduan aurkitzen bada
- ? pertsona batekin **kontaktu estua** izan bada

SUKARRA



EZTULA



AIRE FALTA  
SENTSAZIOA



### EZ JOAN IKASTETXERA

Zure lehen mailako arretako medikuak arriskurik ez dagoela baieztatzen duen arte. Abisatu ikastetxeari eta SPRLari.